

Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun egoeraren Diagnosia

EKIALDE BARRUTIA

Analisisa eta proposamenak



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

2021

Aurkibidea

Sarrera

1

Datu orokorrak

2

Ongizatea eta Gizarteratzea

3

Enplegua

4

Haurtzaroa eta Gazteria

5

Kultura, Euskara, Kirola

6

Kapital Soziala

7

Hirigintza, Mugikortasuna eta Etxebizitza

8





Sarrera

1

Sarrera

Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari dagokion Egoeraren
Diagnosia Ekialde Barrutian

Dokumentu honetan Altza, Intxaurrondo eta Mirakruz - Bidebieta auzoek osatzen duten Donostiako Ekialde Barrutiko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari dagokion Egoeraren Diagnosiari buruzko alderdi nagusiak jasotzen dira.

Horretarako, Diagnosi horretan eskuratutako datuak aztertu dira (informazio nagusia Donostiako Estrategia Bulegoak jaso du) eta ondorio modura eratu da ikuspegi feminista batekin. Era berean, berdintasuna ahalbidetzeko zenbait ekintza gaineratu dira.

Prozesu osoan zehar kontutan izan dira Plazandreek, Emakumeen Foroak, La Ciudad eta IZBE (Intxaurrondo Zaharreko Bizilagunen Elkarte) kolektiboek nahiz Donostiako Berdintasun Sailak egindako eskaerak.

Halaber, informazioa ahalik eta eguneratuen gaineratzeko ahalegina egin da. Dena den, datuak jaso eta dokumentua taxutzeko prozesuak luze jo duela adierazi behar da. Horri dagokionez, Donostiako Udaleko Berdintasun Sailarekin hartutako erabakia kasu guztietan eskuragarri zeuden datu eguneratuenak erakustea izan da, erreferentzia modura 2020. urtea hartuz. Halere, Covid-19 gaixotasunaren ondoriozko osasun-krisiaren eragina eta hark pertsonen bizimodu eta errutinetan izan duen inpaktua kontuan izanik, errealitateak ahalik eta hurbilen dagoen analisi bat egiteko xedez, aurretiazko datak dituzten zenbait datu (2017, 2018 edo 2019koak) ere erabili dira erreferentzia gisa.

Diagnosiaren zein txosten honen helburua bada, alde batetik, Ekialde Barrutian dauden desberdintasunak ikustaraztea eta, beste alde batetik, epe laburrera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan bat egitea, desberdintasun horiek guztiak hainbat ekintzen bitartez murriztu daitezzen.

Bukatzeko, diagnosi honen lan-prozesu osoa nabarmendu nahiko genuke, hurbilketa kuantitatiboa izateaz gain, genero desberdintasunen erantzun kualitatiboa izatea bilatu baita. Aldi berean, bazterretan eta ikusezin izan diren emakumeen errealitateak erakusteko saiakera izan da, Donostiako Ekialde Barrutiko emakumeen bizitzak agerrarazteko saiakera, alegia.

Aurrekariak

Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari dagokion Egoeraren
Diagnosia Ekialde Barrutian

Garrantzitsua da nabarmentzea Ekialde Barrutian politika feministen esparruan orain arte egindakoa, mugimendu feministaren lana goraipatuz, izan ere, mugimendu feministak Udalaren berdintasunerako politika instituzionala bultzatu du.

Hau horrela, Ekialde Barrutiko batzordeko berdintasunaren taldea sortu zenetik, 2018. urtean, hainbat ekintza burutu ditu Udalaren Berdintasun Sailak, berdintasuna eta indarkeria matxisten aurkako borroka sustatzeko xedez.

Ekintza horien artean topa ditzakegu Ekialde Barrutiko berdintasunari dagokion egoeraren Diagnosia, Berdintasunerako plana burutzeko proposamena, Ahalduntze-eskola, eta Eremu publikoko esku-hartzeak martxan jarri izana.

2

Datu Orokorrak

2

Datu Orokorrak

Demografia



Jaiotze tasa zahartzea

15 URTETIK
BEHERAKO
100
PERTSONAKO
65 URTETIK
GORAKO 180
PERTSONA
DAUDE
EKIALDE
BARRUTIAN

Populazioa modu nabarian zahartu da eta horrek desoreka demografiko bat ekarri du, zahartze-indizearen bidez islatzen dena, emakumeen artean askoz ere nabariagoa (aurreraxeago ikusiko dugunez).

2020an EBko zahartze-indizea (180) batez bestekoaren azpitik dago, hiri osoa kontuan izanik, izan ere, hirian batez besteko indizea 192koa da.

Kopuru hori gainditu egiten du Mirakruz - Bidebieta auzoko zahartze-indizeak (219) eta ondoren dago Intxaurren auzoa (183). Altzan agertzen da indize apalena (172).

Gehiegizko zahartzearen indizeari dagokionez, Donostiakoa (0,31) handiagoa da EBkoa baino (0,28). Beste behin ere Mirakruz - Bidebieta auzoak (0,35) zenbaki horiek gainditzen ditu.

EBko jaiotza-tasa 2020an % 5,7koa izan zen, Donostiako batez bestekoaren azpitik (% 6,4). Auzoka, Altzako jaiotza-tasa (% 5,9) handiagoa da EBko batez bestekoa gaindituz. Intxaurren (% 5,6) eta, batez ere, Mirakruz - Bidebietan (% 5,3) batez bestekoak apalagoak dira.


LAN EGITEKO ADINEAN
DIREN 100 PERTSONAKO,
GUTXI GORABEHERA 15
URTETIK BEHERAKO 40
HAUR ETA 65 URTETIK
GORAKO PERTSONA HELDU
EGONGO LIRATEKE ZAINZTA
PREMAZ.
HALA, DATU HORI % 60KOA
DA MIRAKRUZ -
BIDEBIETAREN KASUAN.

Behin jaiotza-tasari eta zahartzeari dagozkion datuak aztertuta, interesgarria da Mendekotasun-tasa nabarmentzea.

EBko tasa (% 51,47) Donostiako batez bestekoaren azpitik (% 58,98) dago. Gauza bera gertatzen da Intxaurrendoren kasuan, izan ere, tasa apalena (% 40,88) ageri du, eta ondoren dago Altza (% 56,58). Mirakruz - Bidebietaren kasuan tasa Donostiako batez bestekoaren gainetik dago (% 60,27).

Mendekotasun-tasa, aztertutako datu guztietan, handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

Iturria: UIB, 2018 y EUSTAT, 2018



Populazioaren zahartzea zaintzarekin eta mendekotasun-egoeren ondorioz galtzen diren autonomia eta garapenetik eratorritako premiekin dago estu lotuta. Emakumeak izan dira, historikoki, familiako zaintzak eman dituztenak, eta baita biloban zaintzaz arduratu direnak, edo haien ardurapeko mendeko pertsonena, beren senarrak kasu. Oro har, emakumeen zahartze eta gehiegizko zahartzearen indizeak handiagoak dira urteak igaro ahala. Horregatik, beharrezkoa da honakoa planteatzea,

Nork zainduko ditu adin nagusiko emakumeak haiek direnean zaintza behar dutenak?

Generoaren inpaktua adierazgarria da errealitate hauetan. **Horrenbestez, emakumeen premia zehatzei erantzuteko arretarekin eta politika egokiekin lotutako premiak gero eta handiagoak dira.** Adibidez: alarguntsa, bizi-kalitatea, osasuna, pentsio baxuek eragindako ahalmen ekonomiko urria, etab.

Jaiotza-tasa, berriz ere, zaintzekin lotura estuan dago, eta baita **kontziliazioarekin edo erantzunkidetasunarekin edo kontzientziario/sentsibilizazio lanketekin eta errealitate hori zilegi egiteko ekipamenduekin.** Joera demografikoarekin bat datorren plangintza bat finkatuz. Jaiotzen beherazko joera eta, horrenbestez, azpiko egitura ahulduta duen populazio-piramidea, Ekialde Barrutian soilik eragiten ez duen joera global baten ondorio da. Errealitate horren atzean dauden faktoreak asko eta anitzak dira, baina emakumeengan eragiten dute bereziki eta jaiotza-tasan eragin estua izan dezakete. Faktore horien artean daude lan-egonkortasuna, eros-ahalmen urriagoa, etab.

EKINTZA PROPOSAMENAK

1. Adin nagusiko pertsonen zuzendutako zerbitzu eta baliabide publiko eta itunduak aztertu eta hautemandako premiak arintzeko neurriak proposatzea.
2. Adin nagusiko pertsonen bakardadea eta isolamendua arintzeko ekintzak bideratzea.
3. Auzo-zaintzen sareak sustatzea.
4. 55 urtetik gorako emakumeei zuzendutako programa eta ekintzak antolatzea, haien premia eta desirak identifikatuz.
5. 55 urtetik gorako emakumeen aisialdi eta prestakuntza beharrak biltzea eta ekintzak egitea behar horietan oinarrituta.
6. Zaintzetara bideratutako zerbitzuei buruzko informazioa helaraztea.

1/4

Ekialde Barrutian bizi diren atzerriko pertsonak

%48,3

emakumeak dira

Emakumeen artean jatorri ohikoena:

%17

Honduras

%12,5

Nikaragua

%9

Kolombia

2020an 4.010 dira Ekialde Barrutian bizi diren pertsona migratuak, hots, populazio osoaren % 9, Donostiako proportzioa arinki gaindituz (% 8,5). Altzan daude EBko pertsona migratuen % 48,4 (Donostian bizi diren guztien % 12). Populazio migratuen artean emakumeen portzentajea apalagoa da EBn (% 48,3 dira emakumeak) Donostiarekin alderatuz (% 52).

EBko eta Donostiako 10 jatorri ohikoenei so, alde adierazgarriak ikus ditzakegu, pertsona migratuen artean ordezkari handiena duen herrialdea honakoa izanik:

Donostian, Honduraskoak (% 13,7)
EBn, Marokokoak (% 16)

Iturria: UIB, 2020

EBn emakume gehienek Iberoamerikan dute jatorria (% 38,5) eta Mirakruz-Bidebieta da migratzaileen artean emakumeen portzentajea gizonena baino handiagoa den auzo bakarra (% 56 ordezkatzuz).

Jatorrizko herrialdeari dagokionez, EBko gizon migratzaileen % 24 Marokokoa da.


Iturria: UIB, 2017

Alderik handiena sexuaren eta auzoaren arabera...

MIRAKRUZ-BIDEBIETAN
JATORRIA IBEROAMERIKAN
DUTEN PERTSONEN % 61,8
EMAKUMEAK DIRA.

INTXAURRONDON
JATORRIA MAROKON
DUEN POPULAZIOAREN
% 84,7 GIZONEZKOA DA.

Iturria: UIB, 2017



Generoaren ikuspegian begirada interseksionala txertatu behar da. Migrazioak eragina du emakumeengan, eta gainera eragin hori desberdina da gizonengan duen eraginarekin alderatuz. **Hori dela eta, emakumeak migrazio-prozesuen subjektu aktibo modura agerrarazi behar dira, zein zaugarritasun mailan dauden ahortzi gabe.** Gero eta gehiago dira migratu eta beren etxeetako hornitzaile ekonomiko bilakatzen diren emakumeak. Haatik, honakoa kontuan izan behar dugu: "emakume atzerritar langileen sektore eta okupazio aldetiko metaketa handia kualifikazio apalagoko enpleguetan, gizon atzerritarren artean eta emakume espainiarren artean ematen dena baino nabarmenagoa" (Molpeceres, 2012, 94. Or.). Horri beste faktore batzuk gaineratuta, egoera irregularrean bizitzea edo hizkuntza ez ezagutzea kasu, zaugarritasun maila handiagoa da.

EBn aurkitzen dugun errealitate nabarienetako bat da emakumeen artean jatorri ohikoena Iberoamerika dela. **Zaintzekin lotutako lanak, eskas baloratuak sozialki eta ekonomikoki, egiteko migra dezaketen emakumeak.**

Bestalde, ikusten dugunez, gizonen artean ohikoena den jatorrian (Maroko) emakumeen ordezkartza nahiko urria da. Beraz, **horrek zailtasun gehiago ekar ditzake jatorri bereko emakumeen artean babes-sareak sortzeko garaian.**

EKINTZA-PROPOSAMENAK

7. Zerbitzu publikoen gaineko azterketa bat egin eta horietan emakume migratuen errealitatea kontuan hartzeko proposamen zehatzak taxutzea.
8. Ekialde Barrutian emakume migratuek bizitza ekonomiko, kultural, sozial eta komunitarioan egiten duten ekarpena agerrarazteko ikus-entzunezko materiala prestatzea.
9. Emakume migratuen ahalduntze asoziatiboan laguntza eskaintzea.
10. Emakume migratuen artean eta emakume migratu eta bertakoen arteko sareak sortzea ahalbidetzeko ekintza kultur anitzak egitea.
11. Emakume migratuen premia eta errealitate zehaztutara bideratutako prestakuntza-ekintzak eta topaketak bultzatzea, bereziki ahalduntze-eskolaren bidez.
12. Emakume guztien partaidetza bultzatzea esparru guztietan (sozialak, kulturalak, etab.), batez ere emakumeekin lotzen diren beste estereotipo batzuen ondorioz partaidetza-indize urriagoa dutenak lehenetsiz.



Donostiako populazioaren ezaugarri da prestakuntza-maila handia izatea, batez ere, emakumeen artean. Horri buruz dagoen informazioaren arabera, % 25,7k unibertsitate-ikasketak ditu, emakumeen kasuan % 26,9k eta gizonen kasuan % 24,4k. EBko auzoen arabera, Altzan ageri da portzentaje handiena, emakumeen artean % 11koa eta gizonen artean % 7,2koa.

Ikasketak

2015ean Donostiako populazioaren % 3,4 analfabetoa edo ikasketarik gabea zen, % 3,5 emakumeen kasuan. EBren kasuan portzentajea handiagoa da (% 5,6). Portzentaje hori % 5,9koa emakumeen kasuan eta % 5,4koa gizonen kasuan.

Proporzio handiagoa sexuaren eta auzoen arabera

ALTZAN IKASKETARIK GABEKOAK EDO ANALFABETOAK DIREN PERTSONEN PORTZENTAJEAK (% 6,8) DONOSTIAN DAUDENEN PORTZENTAJEA BIKOIZTEN DU.

MIRAKRUZ-BIDEBIETAN ANALFABETOAK/IKASKETARIK GABEAK DIREN PERTSONEN % 59 EMAKUMEAK DIRA.

Iturria: UIB, 2020 y 2015



Prestakuntza-mailak lotura estua du, besteak beste, enplegagarritasunarekin eta errentarekin. Edozein modutan, **genero-ikuspegiz egindako ikerketek erakusten dutenez, hori ez da beti horrela emakumeen kasuan**. Feminizatutako lan-sektoreak (sozialki eta ekonomikoki okerrago baloratuak, besteak beste), emakumeek baitaratzen dituzten lanaldi erdiak edo eszedentziak (zaintza-lanetara lotuta baitaude) edo kristalezko sabaia dira arrazoi nagusietako zenbait. Ikasketen maila baxua faktore garrantzitsua izan daiteke pertsonen zaurgarritasunari dagokionez, baina batez ere, emakumeen kasuan.

Aztertutako errealitateetan ikus dezakegunez, prestakuntza-mailari dagokionez aldeak adierazgarriak dira hiria-distritua-sexua aldaera aztertzen baldin badugu. Horrenbestez, **interesgarria izango litzateke arrazoi desberdinak direla medio prestakuntzarako sarbidean zailtasun gehiago izan ditzaketen emakumeen artean prestakuntza ahalbidetzeko neurriak txertatzea**.

EKINTZA-PROPOSAMENAK

13. Doako prestakuntza-eskaintzari, zein beka eta gainerako laguntzei buruzko informaziorako ekintzak burutzea
14. Donostiako Emakumeen Etxearen bidez pertsona migratuentzako ikasketak baliozkotzeari buruzko informazio ekintzak ezagutaraztea.
15. Ekialde Barrutiko ikastetxeetan ekimen hezkidetzaille eta kultur anitzak sustatzea, emakume eta neskatoak tradizionalki gizonentzat izan diren lan eta prestakuntza esparruetan sartzea ahalbidetzeko helburuak jasotzen dituztenak
16. Ekialde Barrutian analfabetoak edo ikasketarik gabeak diren pertsonen profilari dagokionez analisi sakonago bat eskatzea (adina-sexua-jatorria) eta esku-hartzeko ekintzak proposatzea.
17. Garraio publikoan laguntza ekonomikoak ematea zaurgarritasun handieneko Ekialde Barrutiko ikasleei.
18. EBko Lehen Hezkuntzako, Bigarren hezkuntzako, Batxilergoko eta Helduen Hezkuntzako zentroetako ikasleen datuak sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera bereiztuak jasotzea.
19. Azterlan zehatzagoa egitea Ekialde Barrutiko prestakuntza eta hezkuntza esparruan, pertsonen prestakuntza beharrak eta zailtasunak ezagutzeko, adinaren, sexuaren eta jatorriaren aldagaiak kontuan hartuta.
20. Lanbide Heziketako ikastetxeen eta goi-mailako ikasketak egiteko ahalmenen suspertzea sustatzea, oro har gazteentzat eta, bereziki, emakume gazteentzat erakargarriak direnak.

%58

Dentsitate
komertziala EB

388

establezimendu gutxiago
Covid-19 gaixotasunaz
geroztik

Establezimenduen dentsitateari dagokionez, EBko balioak oso baxuak dira beste auzo batzuekin alderatuz. Altza da Donostiako dentsitate txikiena duena (% 54,7; Erdialdean, esate baterako, dentsitatea % 204,1ekoa da).

Komertzio motaren arabera sektoreen ezaugarriek EBn erakusten digutenez:

- Komertzioen % 75,9 zerbitzuen sektorera daude bideratuak. (Mirakruz-Bidebietak du portzentaje handiena, % 82,8) komertzioen % 3,5 industriaren sektorera daude bideratuta. (Altzak du portzentaje handiena, % 27)
- Komertzioen %19,9 eraikuntzaren sektorera daude bideratuta (Altzak du portzentaje handiena, % 4,2).

Iturria: Sustapena, 2017- Estrategia Bulegoak eratu

Egoera Ekonomikoa

Donostiako errenta pertsonal handienak (Miramon-Zorroagari dagokiona, 34.272 euroekin) bikoiztu egiten du baxuena (Altza, 14,796 euro).

Donostiako batez besteko errenta pertsonala 20.819 eurotan kokatzen da, Ekialde Barrutiko batez besteko errenta pertsonala 16.161 eurotan.

Mirakruz-Bidebieta (17.121 euro) eta Intxaurren (16.566 euro) ere udalerriko batez bestekoaren azpitik kokatzen dira.

Iturria: EUSTAT, 2018

AUZO ABERATSENEKO
BATEZ BESTEKO
FAMILIA-ERRENTAK
(MIRAMON-
ZORROAGA,
90.011 EURO)
ERRENTA GUTXIEN
DUEN AUZOKOA
HIRUKOIZTU
EGITEN DU IA
(ALTZA, 30.383 EURO).


Genero-ikuspegia errenta pertsonalari buruzko analisisian aplikatzeak soldata-arrakala eskuratzea dakar, planteatu diren analisi-esparru guztietan ageri dena.

· SOLDATA-ARRAKALA DONOSTIAN ESKURAGARRI DAGOEN ERRENTA PERTSONALAREN ARABERA: 7.270€
· SOLDATA-ARRAKALA EKIALDE BARRUTIAN ESKURAGARRI DAGOEN ERRENTA PERTSONALAREN ARABERA 6.396€.

Soldata-arrakala auzoka, EB:

- Soldata-arrakala Altzan: 7.009€
- Soldata-arrakala Intxaurrondon: 5.018€
- Soldata-arrakala Mirakruz-Bidebietan: 7.163€

Aipatu behar da EBko auzoetan emakumeen urteko batez besteko errenta eskuragarria (13.097€) Donostiako batez bestekoaren (17.457€) azpitik kokatzen dela.



Iturria: EUSTAT, 2018



Genero desberdintasunak ez dira uneko kontua, *sine qua non* harremana baizik, ikasketa maila apalagoa duten emakumeek laneratzeko aukera gutxiago dute, lan-merkatuan sartzen direnean prekarietate handiagoan izaten da, eta oro har, jasotzen duten soldata txikiagoa da. Altzako kasuan ikusi dugun bezala, emakumeen prestakuntza-maila apalagoa da beste auzo batzuekin alderatuz gero, batez besteko errenta pertsonak eskuragarria bezalaxe.

Horrela, familia-ingurunean zaintzarekin lotutako lanketak beregain hartzea izan ohi da emakumeek batez besteko soldata txikiagoa jasotzearen beste arrazoi nagusi bat -izan ere, emakumeak dira, gehienbat, lanaldia murrizten dutenak edo eszedentzia hartzen dutenak, besteak beste-. Emakunderen Zifren Txostenaren arabera (2021), 2019an adin txikikoak nahiz senitartekoak zaintzeko eskatutako eszedentziei dagokienez, emakumeak oraindik gehiago osoa dira bi kasuetan. Zehazki, 4.447 emakumek eszedentziak eskatu dituzte beren seme-alabak zaintzeko, eta 516 izan dira eskaera hori egiten duten gizonak. Lanaldi partzialari dagokionez, emakumeen garrantzia erlatiboak gora egin du, guztiaren % 78,3 izatera iritsiz.

Ekialde Barrutiko ekonomia-jarduerari dagokionez, establezimenduak emakumeen edo gizonen jabetzakoak ote diren jakin ez badezakegu ere, dakiguna da zerbitzuen sektorean emakumeen presentzia beste sektore batzuetan baino handiagoa izaten dela-Emakunderen Zifren Txostenaren arabera (2021) 405.612 emakume zeuden EAEn lanean zerbitzuen sektorean 2019an, hots, % 57,6a. Emakumek Euskadiko Soldata Arrakalari buruz egindako azken txostenean (2021) adierazten denez, soldata-arrakala handiena zerbitzuen sektorean dago (%21,8) eta sekzioen artean erreparatuta, beste herrialde batzuetan jaiotako pertsonen arteko soldata-arrakala EAEn jaiotakoena baino 10 puntu handiagoa da.

COVID-19 gaixotasunaren ondorioz Ekialde Barrutian komertzio asko itxi egin dira, eta barruti horretan abiapuntuan establezimendu aldetiko dentsitatea txikiagoa zen Donostiako beste auzo batzuekin alderatuta. Hurbiltasunezko negozioek kontziliazioa, adin nagusiko pertsonen bizitza autonomia, auzoaren aberastasuna, eta segurtasunaren pertzepzioa ahalbidetzen dute.

EKINTZA-PROPOSAMENAK

21. Adin txikikoen zaintzarako zerbitzu publikoen analisi bat egitea, hobekuntzarako proposamenekin batera.
22. Hazkuntza-lanetan gizonen erantzukizuna eta erantzunkidetasuna bultzatzera bideratutako prestakuntza jarduerak garatzea.
23. Eskolako Gizarte Laguntzako tailerrak eta eskolaz kanpoko jardueren programak sustatzea adin txikikoak artatzeko eta bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa kontziliatzea ahalbidetzeko.




Ongizatea eta Gizarteratzea

3

Ongizatea eta Gizarteratzea

Donostiako Gizarte Ongizate eta Arreta zerbitzuekiko Donostiako herritarren balioespena 6,8 puntukoa da 10 puntutik, inkesta bete duten pertsona guztiak kontuan izanik; EBn bizi diren balioespena apur bat apalagoa da, hots, 6,5ekoa (Donostiako Estrategia Bulegoa. Herritarren pertzepzioari buruzko inkesta, 2017).




Baliabideak eta asistentzia

Donostiari dagokionez, EBn gehien izapidetu diren baliabide motak gizarteratzearekin lotutakoak izan dira (mota horretako baliabide guztien % 50,7). Auzoen arabera izapidetutako baliabide kopuruak erakusten digunez, Intxaurren izapidetu ziren baliabideen % 42, ondoren Larratxo-Herrera-Altza (% 39) eta Mirakruz-Bidebieta (% 20).

Iturria: UIB+ Gizarte Ekintza Memoria DSS, 2019

Arreta-tasak:

- Arreta-tasak udal SOK koordinazioetan (familia-unitateen gainean): handiagoa da ED distrituko auzoetan. Donostian portzentajea % 17,92koa izanik. Bidebieta-Herreran ageri da portzentaje handiena (% 22,02).
- Gizarteratzeko baliabideen eskaera biztanleko: Handiagoa da EBko auzoetan Donostian baino (% 2,76), batez ere Intxaurren (% 5,4)
- SOK koordinazioko sistematik kanpo bakarrik bizi diren adin nagusiko pertsonen tasa Handiagoa da Donostiaren kasuan (% 49,68) EBko auzoetan baino, portzentaje apalena Intxaurren dagoelarik (%39,34).



Iturria: UIB, 2019

Iturria: EUSTAT, 2014



EBn, Intxaurreondon ematen zaie 65 urtetik gorako adin nagusiko pertsoneri estaldura gehien (% 7,13), ondoren Bidebieta-Herrera (% 5,61) eta Larratxo-Altza (% 5,60) daude, (Loiolako Erriberak-Loiola-Martutenek baino ez ditu horiek gainditzen, %14,73).

Iturria: Gizarte Ekintza Memoria, DSS, 2019

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) ekonomia aldetiko muga erakusten duten egoerak zenbatesteko iturri alternatibo bat da.

EBn DBE errenta jasotzen duten emakumeen proportzioak (% 3,6) Donostiakoa gainditzen du neurri handi batean % 2,0)


Gainera, Ekialde Barrutiko hiru auzoetan emakumeen proportzioa handiagoa da gizonena baino, Intxaurreondon portzentaje apur bat handiagoa ageri badute ere (auzoan bizi diren emakumeen % 3,75ak eta gizonen % 2,91k).


Iturria: Lanbide, 2020

Errentak eta gizarte laguntzako zerbitzuak

Etkez Etxeko Laguntza zerbitzua pertsoneri beren etxeetan eskaintzen zaien zerbitzua da, norberaren zaintzan nahiz etxeko zaintzan laguntza emateko helburuarekin. Lanketak egin edota zaintzak emateko mugaren bat duten pertsona indibidualei zein familia-multzoei dago zuzendua, eta baita zaintzaileari ere, atsedean modura.

DONOSTIAN PERTSONA TITULARREN ARTEAN %37,75 85 URTETIK GORAKO PERTSONAK DIRA. %66,23 EMAKUMEAK DIRA






Gizarte Larrialdiko Laguntzak -GLL- unean uneko izaera duten diru-laguntza erako prestazio ekonomikoak dira. Prestazio horiek gastu espezifikoak (ohikoak edo ez ohikoak, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitu, ekidin edo arintzeko ezinbestekoak) aurre egiteko behar besteko baliabideak ez dituzten pertsonak laguntzera daude bideratuta.

Gizarte-ekintzako Eremuari dagozkion datuak erabiliz egindako kalkuluek erakusten dutenez:


- Altzan 544 pertsona dira GLL laguntzen titular direnak, hots, populazio osoaren % 2,6.
- Intxaurreondon 431 dira, gutxi gorabehera, GLL laguntzen titular, hots, auzoko populazio osoaren % 2,7.
- Mirakruz-Bidebietaren kasuan GLL laguntzen titular diren pertsonak 289 dira, hots, auzoko populazio osoaren % 3,2.



Iturria: Gizarte Ekintza Memoria, 2020

GLL laguntzen onuradun diren etxeen tasak adierazten duenez, tasa hori proportzioan handiagoa da EBko auzoetan, Donostian baino (% 3,44). Intxaurreondon aurki daiteke tasa handiena (% 6,31), ondoren Bidebieta-Herreran (% 6,13) eta Larratxo-Altzan (% 5,85). Datuak Donostiako Udalaren Gizarte Ongizate Saileko diagnostik atera dira).

Iturria: UIB, 2014



INTXAURRONDOKO
EMAKUMEEN BIZI-
ITXAROPENA 3,8 URTE
BAXUAGOA DA AMARA
EDO ALDE ZAHARREKO
EMAKUMEENA BAINO.

Iturria: Donostiako Etxegintza 2017 eta Estrategia
Bulegoa EAEko osasun inkestatik abiatuz (2013)

Datuak genero-ikuspegiz aztertuta, emakumezkoen zahartzea askoz ere handiagoa dela antzeman daiteke kasu guztietan:

- Donostian emakumeen zahartze-indizea (233,41) handiagoa da EBn (213) baino.
- Mirakruz-Bidebietan emakumeen zahartze-indizeak (241,9) Donostiakoa gainditzen du.

Populazioaren gehiegizko zahartzeari dagokionez, 80 urtetik gorako pertsonen datuak erakusten dutenez, horien artean emakumeak dira gehienagoa, Donostian 80 urtetik gorako populazioaren % 68 ordezkatuz, EBn portzentaje hori apur bat apalagoa delarik. Hala, Intxaurrondon eta Mirakruz-Bidebietan proportzioa handiagoa da Donostian baino (% 69,5 eta % 68, hurrenez hurren).

Iturria: UIB, 2020



Emakumeak izaten dira izaera sozialeko zerbitzuetako erabiltzaile nagusiak, onuradun modura, zaintzarekin edo laguntza ekonomikoekin lotuta daudenetan, edo horien eskatzaile modura, familian eragina duten baliabideak direnean.

Emakumeak dira tradizionalki zaintzaile eginkizuna beregain hartu dutenak eta beren autonomia galtzen hasten diren unean beren familia-sareko laguntzatik urrun ikusten dute beren burua (zaindu egiten dute, baina ez dira zainduak) Emakunderen Zifren txostenaren arabera (2018): "adin nagusiko pertsonentzako egoitzen kasuan, emakumeek bizi-itxaropen handiagoa dutenez, haiek dira baliabide horietako erabiltzaileak gehienbat, 7-3ko proportzioan. Baliabide horiek, nagusiki, emakumeek erabiltzen dituzte eta adinak gora egin ahala gero eta gehiago".

Aipatu behar da Ekialde Barrutian ez dugula aurkitu ama bakarreko familien errealitatea islatzen duten daturik. Haatik, errealitate horiek beste maila batzuetan aztertuz islatzen denez, eros-ahalmen gutxiago dute edo zailtasun gehiago kontziliatzeko garaian, besteak beste.

EKINTZA-PROPOSAMENAK

24. Emakumeen osasuna eta ongizatea bultzatzea, zaintza-lanetan aritzen diren emakumeen parte-hartzea ahalbidetuz: emakumeak beren osasunaren protagonista eta eragile aktibo bilakatzeko ekintzak abian jarritz, ongizate fisiko, psikologiko eta sexuala kontuan izanik. Norberaren zaintzarako ikastaroak antolatzea, pertsona zaintzaileen eskubideei buruzko informazioa eskainiz.

25. Ekialde Barrutian zaintzak antolatzeko moduari buruzko azterketa sakonago bat egitea, premiak jasoz eta hobetzeko ekintza zehatzak proposatuz.


26. Gizarte-zerbitzuetara urreratzen diren pertsonen eskaerak genero-ikuspegitik aztertu eta datuak sistematizatzea, premia zehatzak identifikatuz eta, beharrezkoa balitz, neurriak hartuz (sexu, adin eta jatorriaren arabera, besteak beste).

27. Ekialde Barrutian ama bakarreko familien errealitatea aztertu eta desberdintasunak desagerrarazteko ekintzak proposatzea.

Gizarte Ekintzako Sailak indarkeria matxistaren biktimak artatzeko zerbitzu bat du. Zerbitzu horretan hainbat programa garatzen dira, bai biktimak artatzeko eta baita indarkeria prebenitzeko ere.

Programa honen bidez informazioa eta laguntza eskaintzen zaie indarkeria matxistaren biktima diren pertsoneri, Gizarte Ekintzako Zuzendaritzako berezko baliabideak eta beste sail edo instituzio batzuetatik bultzatutako beste zenbait erabiliz. Programaren arduradunek kasu bakoitzaren diagnosia dute abiapuntu eta biktimarekin esku-hartzeko plan bat adosten dute. Plan horren barnean laguntza psikologikoko zein aholkularitza juridikoko baliabideak, laguntza ekonomikoak, heziketa arloko laguntza eta akonpainamendua, kulturarteko bitartekaritza eta alojamendua sar daitezke. Kasuistika zehatzak horrela banatzen dira: indarkeria matxistaren biktimak, familia barneko indarkeriaren biktimak, sexu-indarkeriaren biktimak eta beste zenbait arazo.

Indarkeria matxista



Iturria: Gizarte Zerbitzuak DSS, 2019

EKINTZA-PROPOSAMENAK

28. Emakumeen errealitate eta premiak aztertzea indarkeria matxistaren esparruan, emakume migratuengan arreta berezia jarritz.
29. Indarkeria matxistaren esparruko esku-hartzean ikuspegi interseksionala gaineratzea.
30. Ekialde Barrutiko elkarteen sarea sustatu eta sentsibilizazioa bultzatzea osasun integrala eta indarkeria matxistaren prebentzioa bultzatzeko.
31. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eta sexu-erasoen prebentziorako ekintzak eta programak garatzea komunitate mailan.
32. Indarkeria matxistaren inguruan ekin eta prebenitzeko espazio bat sortzea ahalduntze-eskolen testuinguruan.
33. Ekialde Barrutian indarkeria matxistaren aurrean jarduteko protokoloa egitea.
34. Indarkeria matxisten kasuen prebentziorako zein esku hartzerako Batzordearen eta Ekialde Barrutiko elkarteen, osasun zentroen eta Udalaren Gizarte Ekintzaren arteko harremanak bultzatzea,

4


Enplegua

4

Enplegua

Enplegua eta langabezia


Donostiako Udaleko Etxebizitzaren Diagnosiaren datuen arabera (2018), 2016an Donostiako populazioaren % 42,3 lanean ari dela estimatzen da (16 urte eta gehiagoko populazio osoa kontuan izanik). EBn lanean ari den populazioaren portzentajea udalerriko batez bestekoaren antzekoa da, zehazki, % 42,6koa.



EMAKUMEEN % 21 LANGILE EZ KUALIFIKATU MODURA ARI DA LANEAN EKIALDE BARRUTIAN (DONOSTIAN, % 14,3)

Iturria: Etxebizitza diagnosis DSS, 2018

Donostian langabe dauden 8.739 pertsonetatik, % 30,8 EBkoa da (2.697 pertsona). Distrituaren barnean, % 13,25eko portzentajea dago Altzan, % 11,6koa Intxaurrondon eta gainerako % 6a bizi da Mirakruz-Bidebietan.



- Langabezia populazio osoarekin alderatuz Altzan: % 5,9
- Langabezia populazio osoarekin alderatuz Intxaurrondon: % 6,8
- Langabezia populazio osoarekin alderatuz Mirakruz-Bidebietan: % 6,1
- Iraupen luzeko langabezia dauden pertsonen dagokienez ikus dezakegunez, EBn portzentajea (% 47,9) handiagoa da Donostian (% 45,1) baino. Auzoen arabera, portzentaje handiena Mirakruz-Bidebietakoa da (% 53,7) eta ondoren Alzakoa (% 47,2), eta Intxaurrondon portzentajea % 47,2koa da.

Iturria : Lanbide 2020, Fomentok eskainitako datuak

Iturria: Estrategia Bulegoa Lanbide bidez, 2019

Interesgarria da Covid-19 gaixotasunaren ondoriozko krisiaren eragina aztertzea Lanbideren 2018ko abenduko datuekin alderatuz.

- Donostian 1.031 pertsona gehiago daude langabezian eta EBn 214.

-Langabeziak gehiago egin du gora gizonen artean emakumeen artean baino Ekialdeko Distrituan:

- Altza: +46 emakume +197 gizon
- Intxaurren: -3 emakume +54 gizon
- Mirakruz-Bidebieta: +22 emakume +31 gizon

Horren ondorioz, langabezian dauden emakumeen portzentajeari dagokionez arrakala murriztu egiten da.

Enplegua funtsezko euskarri bat da gizarte-kohesiorako gizarteratzeko bidean. Enplegua izateak txirotasun-egoeran izateko arriskua behin betikoz uxatzen ez baldin badu ere, enplegurik ez izateak zaugarritasun ekonomikoko egoeran sartu eta txirotasuna eta gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskua areagotu egiten du. Langabeziak zaugarrienak diren kolektiboetan eta emakumeengan eragiten du neurri handiago batean, esate baterako, ekonomia-krisiaren ondorioen intzidentzia handiagoa izanik. Donostian Gizarteratzeko Premien Diagnosiaren arabera, langabe dauden pertsonen artean txirotasun-mailak handiagoak dira populazio orokorrarekin alderatuz (adin aktiboan eta enplegu batekin lan egiteko moduan pertsonarik ez duten etxeetan pertsonen % 40,2 muturreko txirotasun egoeran dago). Dokumentu beraren arabera, laneko prekaritatea da zaugarritasunaren beste elementu bat. Hala, Donostian lanean dagoen populazioaren %6,2 txirotasun-arrisku erlatiboan dago (2014), bereziki lanaldi partzalean lan egiten dutenen artean (pertsona txiroen artean, lanaldiko partzaleko enplegu-tasa % 33,8koa da, eta populazio osoa kontuan izanik portzentaje hori % 14,4koa da). Ikusi ahal izan dugunez, errealitate horiek maizago ageri dira emakumeen artean, baina baita adin nagusiagoan dauden pertsonen eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonen artean ere. Garrantzitsua da kontuan izatea eskuratu ahal izan diren datu gehienak ekonomiaren errealitate produktiboari buruzkoak direla, eta ez neurri handi batean emakumeek betetzen duten jardun erreproduktiboari buruzkoak, gainera, sarritan, sozialki eta ekonomikoki balioesten ez direnak. Horrenbestez, interesgarria izango litzateke faktore mota horiek sistematizatzea etorkizuneko analisi kuantitatiboetara.

EKINTZA-PROPOSAMENAK

35. Ekialde Barrutiko emakumeen txirotasunak duen eragina zein den jakiteko analisiak bultzatzea, emakumeen aniztasuna kontuan izanik (ezintasuna, etnia, etab.) eta balizko desberdintasunak desagerrarazteko ekintzak proposatzea.

36. Emakumeen artean enplegu eta auto-enplegurako eskuragarritasuna bultzatzea eta profesionalki sustatzeko aukerak hobetzea, prestakuntzak edo orientazio profesionala eskainiz.

37. Gazte zein emakumeentzat sentsibilizazio-ekintzak eta sormena eta kultura ekintzailea bultzatzea (besteak beste, Emekin bezalako programekin).

38. Sustapenarekin batera bazterkeria-arriskuan dauden emakumeen artean enplegua sustatzeko lehentasunezko esku-hartze esparru estrategikoak identifikatzea.

39. Lan erreproduktiboaren eragina eta familiako kideek hari eskainitako denbora neurtzea.

40. Sustapen programetatik Ekialde Barrutian sortutako emakumeen enplegua aztertzea.


41. Sustapenak, Ekialde Barrutian duen esperientzia berreskuratzea, bai eta aurretik sustatutako enplegu eta merkataritzari laguntzeko planak ere, bereziki emakumeei zuzendutakoak.

5

Haurtzaro
eta Gazteria

5

Haurtzaroa eta Gazteria



Hezkuntza

DONOSTIAKO
HAURRESKOLETAN
LIBRE DAUDE 5
PLAZATIK IA 4
EKIALDE BARRUTIAN
DAUDE (% 79,2)

Iturria: Estrategia Bulegoa haurreskolak.eus abiapuntutzat hartuta, 2016

Iturria: Estrategia Bulegoa INE bidez, 2011

EKINTZA-PROPOSAMENAK

42. Hurbiltasunezko zerbitzuak eskaintzea eta seme-alaben hazkuntzarako tresna erabilgarriak ematea.
43. Ekialde Barrutiko haurreskoletan plazak hutsik egotearen arrazoia zein den jakiteko analisiak egitea eta, beharrezkoa balitz, esku-hartzeko neurriak abiaraztea.
44. Haurreskolak hedatzeko kanpainak sortzea.
45. Baztertuta geratzeko arriskuan dauden familientzako beka- eta laguntza-plan zehatzak bultzatzea, Haurreskoletan matrikulatu ditzaten.

Donostian dauden 9 gaztelekuetatik 3 EBn daude kokatuta, Altza, Bidebieta eta Intxaurrondon. Datuek erakusten digutenez, mutilak dira, batez ere, aipatutako zerbitzuen erabiltzaileak, bereziki Intxaurrondo eta Bidebietan. Azken horietan bazkide diren neskak bazkide guztien % 34 baitira.

%55

emakume langile eta
dinamizatzaile

Iturria: Donostiako Gazteria Saia (2018-2019)

Aisiari eta denboraren erabilerari buruzko hainbat ikerketek nabarmentzen dutenez, emakume eta gizonen artean alde agerikoa dago, eta hori EBko pertsona gazteen errealitatera ekar daiteke. Kasurik gehienetan, neskatoek eta emakumeek denbora gehiago eskaintzen diete zaintzetara bideratutako ordainik gabeko etxeko eginkizunei eta denbora gehiago ematen duten denbora libreko jardueretan. **Garrantzitsua da lanak banatzeko premiaren inguruan hastapenetik sentsibilizatzea, eta baita nesken kasuan norberaren zaintzan eta ahalduntze feministari begira lanketa espezifikoko bat egitea, pixkanaka partaidetzako espazio publikoak har ditzaten.**

EKINTZA-PROPOSAMENAK

46. Gazteguneetan emakume gazteen parte-hartzea bultzatzeko ekintzak burutzea.
47. Ekialde Barrutiko neskato eta neskentzat ahalduntze feministako prestakuntzak egitea.
48. Gazteguneetarako monitoreei zuzendutako prestakuntza eta gaikuntzako ekintzak burutzea nerabeak sentsibilizatzeko lanketak egin eta indarkeria matxistako egoerak modu goiztiarrean hautemate aldera.
49. Batzordearen, elkarten eta Ekialde Barrutiko ikastetxeen arteko harremanak bultzatzea.

A large, stylized teal number '6' is centered on the page. The text 'Kultura, Euskara eta Kirola' is overlaid on the number in white.

Kultura, Euskara eta Kirola

6

Kultura, Euskara eta Kirola

%56 ALTZA
%54 INTXAURRONDO

EBko liburutegietan izena emanda dauden emakumeak

Ekialde Barrutiko auzoetan erroldatutako pertsonen artean, udal kiroldegietako bazkide diren gehienak gizonak dira, emakumeak %46,5 dira.

Kultur ekipamenduei dagokienez, Donostian udal liburutegien sare bat dago, EBra ere hedatzen dena. Hala, Donostian guztira 93.193 erabiltzaile leudeke, gehienak emakumeak (% 55).

%46,5

emakume erabiltzaile EBko kirol instalazioetan

Kirol eta kultura ekipamenduak

Iturria: Donostia Kirolak (2017) eta Donostia Kultura (2020)

Euskara

Kasu honetan sexuaren arabera banakatutako daturik egon ez arren, oro har, Donostiako populazioak aurrera egin du euskararen ezagutzari dagokionez; 2016an, zuten euskara mailaren arabera, % 49,20k euskalduntzat du bere burua, % 18,77k sasi euskalduntzat eta gainerako % 32,03k gaztelaniako hiztuntzat.

%43,8

euskaldun Intxaurren


%36,2

Altzan

%38,7

Mirakruz-Bidebietan

Iturria: UIB EUSTAT, 2016, bidez.



Gaur egun bada emakumearen diskriminazioa kirol arloan: adin guztietako zein maila guztietako jardunean; erantzukizunezko eta erabakitze lanpostuetan; emakumeen kirol lorpenen balioespenean; etab. Gainera, emakumeek egiten duten jarduera fisiko mota aztertzen baldin badugu, kalitate aldetik askoz ere apalagoa dela ikus dezakegu. Emakumeek aukeratzen dituzten jarduerak izaten dira banakakoak, oso gutxi taldeko kirolak egiten dituzte; kirol mota eskaintza txikiagoa dute; kontaktu fisikoa suposatzen duten kirolak uxatzen dituzte; 'etxekotutako' espazioak erabiltzen dituzte; Naturatik urrunduak; euren etxetik gertu, ...

Era berean, Kultura arloan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak esanguratsuak dira: emakumeek publiko kontsumitzaile modura presentzia adierazgarria eta kulturaren sektoreko lanpostuetan maila ia paritarioak badituzte ere, lan-merkatuan haien garrantzia txikiagoa da ia sektore guztietan, batez ere, erantzukizuna eta erabakiak hartzeko lanpostuetan. Kultura hedatzeko zentroetan, esate baterako, museo, antzoki edo zinema-aretoetan, sortzaile diren emakumeen presentzia txikia da oraindik. Dena den, oso zaila da kultura definitzea eta mugatzea, hiri batean kultura adierazteko hainbat modu baitaude, ikus-entzunezkoak, musika, literatura edo jaialdiak kasu.

2016ko Kultura Ohituren Paneleko datuen arabera (Euskadiko Kulturaren Behatokia), emakumeek gizonak baino kultura gehiago kontsumitzen dute. Urtean 8,75 liburu irakurtzen dituzte (4,59 gizonak) eta liburutegira gehiago joaten dira (emakumeak urtean 3,70 bider eta gizonak urtean 2,48 bider). Aldeak txikiagoak dira zinemara (3,71 vs. 3,63), ikuskizunetara (3,22 vs. 2,89) edo erakusketetara (2,78 vs. 2,65) joateari dagokionez, nahiz eta emakumeen presentzia handiagoa den. Bestalde, Donostiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari dagokion Egoerari buruzko 2018ko Diagnosiaren arabera, gizonak gehiagotan joaten dira kontzertuetara (3,68 vs 3,22) gehiago jokatzen dute bide-jokoetan emakumeek baino (bikoitza) eta film, serie eta bideo gehiago ikusten dituzte Internetez (astean 5,1 vs astean 4,84).

EKINTZA-PROPOSAMENAK

50. Jarduera fisikoaren analisi kuantitatibo eta kualitatibo bat egitea, genero arrakalak hautemateko, emakumeen aniztasuna kontuan izanik, eta arrakala horiek desagerrarazteko proposamenak egitea.
51. Kirol esparruarekin lotutako ahalduntze-ekintzak burutzea, esate baterako: mendiko orientaziorako tailerrak, bizikleten konponketa...
52. Neskato eta emakumeen artean kirol jarduna bultzatzea, haiei zuzendutako klub eta tailerrak sortuz.
53. Kulturarekin eta euskararekin lotutako ekintza kopurua (erakusketak, kontzertuak, etab.) areagotzea, non emakumeak izango diren protagonista, eta baita kirol esparruan ere.
54. Emakumeek, EBkoak edo kanpokoak, kulturari egiten dieten ekarpena ikusaraztea, erreferenteak sortzea sustatuz.
55. Euskararen ikaskuntzarako laguntza espezifikokoak sortzea.
56. Mintzalaguna guneen sorrera sustatzea. Emakume migratuen parte-hartzea azpimarratuz.
57. EBko kirol klubekin neskato eta emakumeen partaidetza sustatzeko esku-hartzea.
58. Ekialde Barrutiko auzoetako kultur eskaintzaren eta kultur ekipamenduen azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa generoaren ikuspegitik, Donostiako errealitatearekin alderatuz.

7

**Kapital
Sosiala**

7

Kapital Soziala

Herritarrek elkartasunarekiko duten konpromisoa boluntariotza-ekintza formal zein ez formaletan ikus daiteke. Donostiako biztanleriaren kasuan, hamarren batek (% 9,7) gobernuz kanpoko erakundeekin kolaboratzen du, inplikazio maila desberdinak izanik (partaidetza hori handiagoa da gizonen kasuan, emakumeen kasuan baino, % 12,9 eta % 6,5 hurrenez hurren)

233

elkarte daude Ekialde Barrutian inskribatuta

%5,2

berdintasunarekin lotutako elkarteak EBn

Elkarte Mugimendua

Iturria: Estrategia Bulegoak eraturia Partaidetzaren datuetatik abiatuta, 2018

Kapital Sozialak ekintza kolektiboa eta gizarte-erantzukizuna sustatzen laguntzen du konfiantzaren eta elkarreaginaren bitartez; pertsonen eta komunitateen sareek ekintza kolektiboa eta kooperazioa ahalbidetzen dute, jendarte osoaren onuran. Harreman eta partaidetzarako dimentsioen artean topa ditzakegu pertsonen arteko sareak eta komunitateko sareak (familiarak, lagunak, auzotarrak, etab.), pertsona zein instituzioekiko konfiantza, eta kooperazioa. **Modu berezian aipatu behar da jendarte edo kolektibo batek baliabideak mugiarazteko duen gaitasun espezifikoa baita harremanetarako sareak izatearen garrantzia ere.**

EKINTZA-PROPOSAMENAK

59. Herritarren partaidetza eta kontsultarako espazioetan genero-ikuspegia gaineratuz, emakumeen ahotsa barneratzea.
60. Ekialde Barrutiko elkarteetan emakumeen partaidetza eta presentzia sustatzea.
61. 65 urtetik gorako emakumeen artean asoziazionismoa sustatzea.
62. Emakume gazteen artean elkartegintza sustatzea.
63. Ekialde Barrutiko Batzordea ezagutarazi eta emakumeen partaidetza sustatzea.
64. Lanean ari diren Ekialde Barrutiko elkarten datu-base publiko eta eguneratua egitea, datuak sexuaren eta adinaren arabera banatuz eta elkarte feministak edo emakumeenak bereziki aipatuz.
65. Ekialde Barrutiko elkarten artean trukerako eta ezagutzarako espazioak sortzea.



Hirigintza, Mugikortasuna eta Etxebizitza

8

Hirigintza


Hiri ekipamenduaren analisi bat burutu da auzoetan sarbide aldetik dagoen estalduraren bidez. Kasu honetan populazioari begira estaldura txikia aipatuko da.



Iturria: Estrategia Bulegoak eratu
UIB bulegoaren datuetatik abiatuta,
2017

Hirigune baten izaera, oinarritzko ekipamenduaz aparte, eguneroko erabilerako jarduerak osatzen dute, eta horretan, hurbiltasunezko merkataritza aipatu behar da. Hori dela eta, hiriko bizi-kalitateari dagokionez, kontutan izan behar da eguneroko erabilerako jardueretan hurbiltasunezko merkataritzaren (farmazia, okindegia, supermerkatua, elikagai-denda, arrandegia, harategia, fruta eta barazkietarako denda, elikagaien azoka) proportzio eta barietate egokia irisgarritasun egokiko parametroetan (oinez 5 eta 10 minutuko distantzia) Oro har, hiriko erdialdeko eremuak hobeto hornituta daude (Erdigunea, Gros,...), Ekialde Barrutiarekin alderatuz.

Ekialde Barrutian segurtasunaren gaineko pertzepzioa (barrutiko auzoetan bizi diren pertsonen inkestan emandako erantzunetatik aterea) 7,6koa da (Iturria: Herritarren Pertzepzioa neurtzeko inkesta, 2017). Donostiako Emakume eta Gizonen Egoeraren Diagnosiak (2013) adierazten duenez, emakumeek gehiago sentitzen dute segurtasunik eza gizonek baino (emakumeen % 62k eta gizonen % 32k), eta maiztasunari dagokionez gizonek baino hiru bider gehiago.



ED Distrituko puntu kritikoak

Iturria: Herritarren Pertzepzioa neurtzeko inkesta, Donostia 2017

SITUACIÓN	MOTIVO
6.- Paseo Subterráneo de Oleta	Paso subterráneo
7.- Paseo Subterráneo de Herrera	Paso subterráneo
11.- Parada Baserria	Zona poco transitada, difícil de ser vista
12.- Estación Herrera-Bidebieta	Zona escondida
15.- Túnel de Egia	Paso subterráneo
17.- Alto Errondo	Zona poco transitada, difícil de ser vista
21.- Camino de Garbera- Larrabxo	Paso subterráneo
22.- Accesos Colegio La Anunciata	Paso subterráneo-zona escondida
26.- Ascensores Buena Vista	Zona escondida
27.- Zona Casares-Artizahar	Zona aislada
28.- Berra 19-Casares 7	Zona escondida
29.- Berra 25-Casares 61	Zona escondida
33.- Jullimasene	Zona poco transitada, difícil de ser vista
38.- Ascensores de Larrabxo	Ascensores opacos, difícil de ser vista
39.- Paseo de Larrabxo	Zona poco transitada, difícil de ser vista
42.- Túnel C/ Ermita	Paso subterráneo

EKINTZA-PROPOSAMENAK

66. Ekialde Barrutiko hirigintza-proiektuetan genero-ikuspegia txertatzea, begirada interseksionalatik, zenbait faktore kontuan izanik, hala nola, sexua, jatorria edo aniztasun funtzionala.

67. EBn segurtasunari dagozkion puntu kritikoak desagerraraztea, bereziki emakumeen kasuan, haien aniztasuna kontuan izanik.

68. Zerbitzu ezberdinetarako irisgarritasunaren estaldura zuzentzeko neurriak planteatzea, batez ere estaldura txikiagoa denean (Mirakruzen kasua bereziki nabarmentzekoa da, izan ere, bertan bizi da populazio zaharrena)

69. Mugikortasun bertikaleko planak lehenestea Ekialde Barrutiko eremuetan, igogailurik gabeko eta irisgarritasun txarreko eraikinetan bizi diren emakume heldu asko biltzen baitira.

70. Altzan eta Ekialde Barrutiko zenbait azpisektoretan identifikaturiko ahultasun historikotik abiatuta, Donostiako HAPO berrian generoan esku hartzeko alternatibak aztertu eta eskaintzea.

8

Mugikortasuna

Garraio iraunkorrerako
irisgarritasuna

%67,46

makume bidaiari Donostiako
DBus zerbitzuan

%57,32

emakume gaueko
lineatan

%42

DBIZI erabiltzaile
Donostian

Ibilgailu pribatuaren alternatiba den mugikortasun-sareen irisgarritasuna da mugikortasun iraunkor baten gakoa. Irisgarritasun ontzat hartzen da herritarrak garraio publikoko geralekura oinez irits daitezkeenean 5 minutu baino gutxiagoan autobus geralekuaren kasuan; 7 minutu baino gutxiago trenaren kasuan; eta 2 minutu baino gutxiagoan bizikleta-sarearen kasuan (300 metro).

Auzoetan estaldura ez da berdina: Intxaurrondon populazioaren % 96,8k irisgarri ditu aintzetsitako 3 garraio-sareetako 2 gutxienez. Mirakruz-Bidebieten portzentajea % 65era murrizten da eta Altzan % 56ra

Dbizi zerbitzuari dagokionez EBn bizikleten geraleku bakarra dago, Intxaurrondon. Hala, auzo horietan zerbitzu horren erabilera mugatua da:

Intxaurrondo: % 10,56

Altza: % 1,56

Mirakruz-Bidebieta: Ez da daturik ageri.

Iturria: Dbus,2016. Dbizi 2019. UIB, 2017

Baiezta dezakegu emakume eta gizonen mugitzeko dituzten moduen artean desberdintasunak daudela, lanaren sexuaren arabera bereizketatik eratorriak. Hala, adin ertainean diren gizonen ibilgailu pribatua erabiltzen dute nagusiki soldatapeko lanarekin eta aisiarekin lotutako joan-etorriak egiteko, eta emakumeak oinez edo garraio publikoan mugitzen dira gehienbat, maiztasun gehiagoan eta bide laburragoetan, zaintzarekin, harreman pertsonalekin eta ordainik gabeko lanarekin lotutako arazoak direla medio. Sexu bakoitzak erabiltzen dituen garraio motei buruzko datuak kontuan izanik, komeni da kontuan izatea garraio publikoko sarea hobetzera bideratutako gastuak onura gehiago egingo diela emakumei eta haiek zaintzen dituzten pertsonen: adin txikikoak eta mendeko pertsonak (Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari dagokion Egoerari buruzko Diagnostika Donostian, 2019).


EKINTZA-PROPOSAMENAK

71. Ekialde Barrutiko garraio publikoko sarea hobetzea, bereziki gauez, auzoen artean eta zonalde isolatuetan.
72. Garraio publikoaren erabileraren sustapenaren inguruko sentzibilizazioa landu.
73. Bizitegietatik urrun dauden zainketa-ekipamenduetatik pasatzen den garraio publikoa hobetzea (adibidez, Berraren kasua).

8

Etxebizitza

Donostian alokairuaren batez besteko errenta 1.262 eurokoa da. Haatik, hiriko guneen arabera desberdintasun adierazgarriak daude. Idealista atariak jasotako datuek erakusten dutenez, udalerriko eremu merkeenak Intxaurren (hilean 795 euro) eta Altza-Bidebieta (hilean 842 euro) dira.



EAE-KO SOLDATAPEKO
18-34 URTE BITARTEKO
EMAKUMEEK BEREN
ERRENTAREN % 59
BIDERATU BEHARKO
LUKETE ETXEBIZITZA
LIBRE BAT EROSTEKO

Iturria: Etxebizitzaren Diagnostika, 2018 Donostiako
Berdintasunaren Diagnostika, 2018

Erosteke ahaleginak, atzeraldian zehar etxebizitzaren prezioak gainbehera egitearen ondorioz modu nabarian murriztu arren, ahalegin onargarriaren ohiko erreferentziaren % 30eko maila erruz gainditzen du.

Jabetzako etxebizitza eskuratzeko kostua **soldatapeko emakumeen kasuan gizonen kasuan baino hamar puntu handiagoa da**. Soldatapeko emakumeentzat gehienez onar daitekeen prezioak oso gutxigatik gainditzen du 100.000 euroko zenbatekoa. Etxebizitza babestuaren prezioan ere askoz ere maila apalagoan dago.

Ekialde Barrutiaren kasuan, emakumeen batez besteko errenta Donostiako batez bestekoaren azpitik kokatzen da. Beraz, **etxebizitza bat erosteko garaian ahalegina handiagoa izan daiteke**, izan ere, prezioak baxuagoak badira ere, kontuan izan behar dugu, era berean, oinarrizko beste premia mota batzuei aurre egiteko gaitasun ekonomikoa ere handiagoa dela.

2.234

eskaera EBn

% 23

Donostiako inskripzio

EKIALDE BARRUTIAN 1.556
PERTSONEK
ETXEBIZITZA BAT
ESKATU ZUTEN
ALOKAIRUAN (% 69,7)
166 PERTSONEK (%
7,4) JABETZAKO
ETXEBIZITZA BAT


Sexuaren arabera banakatutako daturik ez baldin badugu ere, Donostiako Etxegintzaren Erregistroa (2002) sortu zenetik, eta eskuragarri ditugun azken datuen arabera (2018ko urtarrila), erakunde publikoan etxebizitza babestuekin lotuta 33.306 eskaera erregistratu dira udalerrri osoan.

Ekialde Barrutia osatzen duten auzoetan erreparatuz, eta azken eskaerei dagokienez (alta 2015az geroztik, hura barne), aipatu behar da, auzoka, Altza auzoan erregistratzen direla eskaera gehien (919), ondoren Intxaurren (897) eta Mirakruz-Bidebietan (418).

Iturria: Etxegintza, 2018

EKINTZA-PROPOSAMENAK

74. Gizarte-bazterkeria egoeran diren emakumeei etxebizitza erosteko edo alokatzeko laguntza handiago eskaintzea.
75. Emantzipazio Programa aztertu eta 35 urtez azpiko emakumeen partaidetza hobetzeko neurriak proposatzea, errealitate ezberdinak kontuan izanik (ezgaitasuna, adina, jatorria etab.).
76. Egoera ahulenean dauden adineko emakumeen etxebizitzari buruzko premien azterketa egitea.



Donostian oso emakume izen gutxi agertzen dira kale-izendegian eta, gainera, daudenen artean askotxo dira erregetzarekin edo erlijioarekin lotutakoak. "Emakumeon Donostia" proiektuan aitortzen denez, kale edota plazen izenak dituzten emakumeen kasuan, leku horietan ibiltzen diren pertsona askok ez dakite nor izan ziren. Horregatik, mapa bat diseinatu dute kale-izendegian emakumeei dagokienez dagoen gabezia ikusarazteko eta, era berean, agertzen direnen bizimoduak ezagutarazi eta historiari ekarpena egin dioten emakumeen aitortza eta memorian laguntzeko.

Iturria: Emakumeon Donostia. Geo zerbitzuak

Hasieran esaten genuen moduan, garrantzitsua da indarkeria matxistek agertzen dituzten moduak nabarmentzea. Jorratutako indarkeria matxista izeberg-aren puntatzat har badezakegu ere, ikusezin daudenak, ikusgai daudenen euskarri modura, egiturazko indarkeriak lirateke (esate baterako, enpleguari buruzko datuekin agerian geratu den eran) eta **baita indarkeria sinbolikoak ere**, emakumeek imajinario kolektiboan duten presentziarik eza kasu (kale, plaza edo monumentuetan duten ordezkartza).

EKINTZA-PROPOSAMENAK

77. Ekialde Barrutian emakume-izenak, edo enpleguak dituzten; kale, plaza, parke edo ekipamenduen kopurua areagotzea.
78. Ekialde Barrutiko Emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko azterketa egitea.
79. Auzoko emakumeen eta Ekialde Barrutian presentzia duten emakumeen ekarpena ezagutaraztea.
80. Emakumeak espazio publikoan ikusarazteko partaidetzazko ekintzak eta esku-hartze artistikoak burutzea.
81. EBan emakumeak protagonista diren gunetara bisita gidatuak egiteko programak sustatzea.

Informazio Iturriak:

Informazio-iturriak:

- Donostiako Udala, Estrategia Bulegoa
- Donostiako Udala, Sustapen Bulegoa
- Donostiako Udala, Gazteria Saila
- Donostiako Udala, Donostia Bulegoa
- Donostiako Udala, Partaidetza
- Donostiako Udala, berdintasun Saila
- Donostiako Udala, Mugikortasun Saila
- Donostiako Udala, Partaidetza Saila
- Donostiako Udala, Gizarte Ekintza Saila
- Donostiako Udala, Donostiako Etxegintza
- Dbizi Zerbitzua
- Dbus Zerbitzua
- UIB. Udal Informazio Bulegoko datuen udal behatokia
- Emakunderen Zifren Txostena
- Eustat
- INE
- _Lanbide

Artikuluak:

- Molpeceres Alvarez, Laura (2012). "Situación laboral de las mujeres inmigrantes en España". Cuadernos de Relaciones Laborales Vol 30 N° 1

2021

